

## VII. IGANDEA URTEAN ZEHAR (B)

### Otoitza

Jainko ahalguztiduna,  
egizu, zure erakutsiak beti gogoan erabiliz,  
hitzez eta egitez zure nahia bete dezagula.  
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Is 43, 18-19. 21-22. 24b-25

*Ni nintzen, Ni,  
zure gaiztakeriak garbitzen nituena.*

Isaias Profetaren liburutik

Honela mintzo da Jauna:  
«Ez oroitu lehengo gauzarik,  
ez gogoan hartu aspaldikorik.  
Begira, gauza berriak egiten ari naiz,  
hasi dira; ez al duzue ikusten?  
Bide bat irekiko dut basoan:  
ibaiak basamortuan;  
ase dadin nire herri aukeratuen egarria:  
nire gorespenak kantatzeko  
Nik eratu dudan herriaren egarria.  
Hala ere zuk, Jakob, ez ninduzun deitzen,  
zuk, Israel, ez zenuen Niregatik nekerik hartzen,  
ez ninduzun asetzen zure oparien koipez.  
Zure bekatuz behartu egin ninduzun,  
eta aspertu zure gaiztakeriaz.  
Ni nintzen, Ni,  
zure gaiztakeriak garbitzen nituena;  
ez nituen gogoan hartzen zure bekatuak».

ERANTZUN SALMOA: Sal 40, 2-3. 4-5. 13-14

**R/. Senda nazazu, Jauna,  
hoben egina bainauzu zure aurka.**

Bai dohatsu, behartsuaz eta dohakabeaz arduratzen dena,

egun gaiztoan onez aterako du Jaunak.  
 Jaunak gordeko du, eta bizirik edukiko,  
 dohatsu egingo du lurrean:  
 ez du utziko etsaien menpean. R/.

Ohean minez dela, Jauna zaio lagun etorriko,  
 gaitzaldiko ahultasun guztiak kenduko dizkio.  
 Hau diot nik: «Erruki zakizkit, Jauna,  
 senda nazazu, hoben egina bainauzu zure aurka.» R/.

Ni, berriz, osasunean nauzu zainduko,  
 eta zure aurrean betierean edukiko.  
 Bedeinkatua Jauna, Israelgo Jainkoa,  
 betidanik betidaino. Amen, amen. R/.

## II. IRAKURGAIA: 2 Ko 1, 18-22

*Jesus ez zen izan batean «bai» eta bestean «ez»;  
 Harengan denak «bai» egin ziren.*

San Paulo Apostoluak Korintotarrei

Senideok: Ondo daki Jaungoikoak, zuenganako nire hitza ez dela izan batean «bai» eta bestean «ez»; Silbanok, Timoteok eta nik zuei hotsegindako Jaungoikoaren Seme Kristo Jesus ez zen izan batean «bai» eta bestean «ez»; Harengan denak «bai» egin ziren; Jaungoikoak egindako agintzariak «baitza» izan dute Harengan; horregatik, Kristoren bitartez «Amen» esaten diogu Jaungoikoari Beraren aintzarako.

Jaungoikoa da gu eta zuek Kristorengan sendotzen gaituena. Berak sagaratzen gaitu; Berak ezarri du guregan bere ezaugarria, eta gure bihotzetan Espiritua ipini du bere agirizat.

EBANJELIOA: Mk 2, 1-12

**Aleluia:** Ik. Lk 4, 18b-19a

R/. Aleluia.

V/. Behartsuei berri ona ematera bidali nau Jaunak,  
 gatibuei askatasuna hotsegitera. R/.

*Gizonaren Semeak badu lurrean,  
 bekatuak barkatzeko eskubidea.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik

Zenbainegunen buruan itzuli zen berriro Jesus Kafarnauna, eta etxean zegoelako hotsa zabaldu zen. Jendetza haundia bildu zen, ate aurrean ere lekurik ez izateraino. Eta Jesusek hitza adierazten zien.

Eta han etorri ziren lau lagun perlesidun bat zekarkiotela. Baina jendetzarengatik ezin bainzuten sartu, Jesus bera zegoen aldean teilatua altxa, zulo bat egin eta eratsi zuten, perlesiduna etzanik zegoen eskuohea. Jesusek, haien sinesmena ikusirik, honela esan zion perlesidunari: «Seme, barkatzen zaizkizu zeure bekatuak!»

Bazeuden han eserita idazlari batzuk, eta honela zioten beren baitan: «Zer ari da Hau biraoka? Nork barka ditzake bekatuak, Jainkoak baizik?»

Haiek beren barruan zerabilkitena ezaguturik, Jesusek esan zien: «Zer burutapen darabiltzue zeuen bihotzetan? Zer da errazago perlesidunari esaten: "Barkatzen zaizkizu bekatuak", ala "jaiki zaitez, hartu eskuohea eta zoaz?" Hara, bada, jakin dezazuen Gizonaren Semeak baduela lurrean, bekatuak barkatzeko eskubidea... –honela esan zion perlesidunari–: "Zuri diotsut: jaiki zaitez, hartu zure eskuohea, eta zoaz etxera"».

Jaiki zen berehala perlesiduna, hartu zuen eskuohea eta guztien aurrean atera zen. Denak harriturik gelditu ziren, eta Jaungoikoa goresten zuten, esanez: «Ez dugu egundaino horrelakorik ikusi».

### **Oparigaien gainekoa**

Zure misterioa bihotz berriz ospatuz, Jauna,  
apalik eskatzen dizugu:  
zure haunditasunaren osperako eskaintzen duguna  
gure salbamenerako izan dadila.  
Jesu Kristo.

### **Jaunartze ondorengoa**

Jainko ahalguztiduna, Meza honetan  
gure salbamenaren agiria eman diguzu;  
egizu, egunen batetan salbamen hori  
bere betean irits dezagula.  
Jesu Kristo.